

...eta
Kitto!

2019-VII-5

1107 zkia.



Herria artelanez inguratuta



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com



kontzertuak

txupinazoa

su artifizialak

herri-bazkaria

41. AMAÑAKO JAIKAK

EIBARTAR GUZTIONTZAKO

pailazoak

sardinada

danborradak

artisaun azoka

...eta kitto!-ren
itzulpen
 zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
 TESTUAK
 ITZULTZEN
 DITUGU,
 euskaratik
 gaztelerara,
 gazteleratik
 euskarara,
 eta ingelesetik
 euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
 beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.eus



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzio@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Pradoko Museoa

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gaintzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuaretea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIRRI / MIRRIN.- Arina, mehea, urria. "Metaldi mirriña aurtengua". "Ha zan gizon mardua, gelditu da guztiz mirrixa".

MIRUKEIZPA.- Lainuek egiten duten keriza. Normalean pluralean erabiltzen da. "Aldaketia dator itxuria, mirukeizpak ugaritu egin dira-eta".

astean esanak

"10.000 urrats egin beharrarena kondaira bat besterik ez da. Teoria hori oso zabaldua dagoen arren, Osasunerako Mundu Erakundeak ere bere gain hartzeraino, ez du errealitatearekin zerikusirik. Sasoian jartzeko oinarritzko ariketa bezala egunero 10.000 pausu egin behar direla dioenak gehiago du marketing estrategiatik, urratsak kontatzen dituen zenbatzailea saltzeko asmoz. Azken aldian egindako ikerketa konparatiboak erakutsi du askoz eraginkor eta osasungarriagoa dela 10 minutuko hiru txanda egitea ibilera azkarrean"

(MICHAEL MOSLEY, IKERTZAILEA)

"Gaur egun generoa teknologikoa da, zure sexu asignatua zuki nahi duzun horrekin bat ez datorrenean erabiltzen da. Baina biak bat datozenean ere erabiltzen da teknologia hori eta horra hor kirurgia plastikoa. Kirurgia hori gehien kontsumitzen dutenak ez dira transexualak; hori da, hain zuzen ere, eraginetako bat. Sortu dizkiguten gorputz irreal horiek bezalakoak izan nahi ditu jendeak. Gauza oso kuriozosa gertatzen da: transexual baten ebakuntza arrarotzat du gizartearen zati handi batek, hori patologia bat da. Baina normalizat dute ezinezkoak diren gizon edo emakume ereduak teknologiarren bidez gorputzea"

(JOSEBE ITURRIOZ, TRANSFEMINISTA)

"Lehen batek bizitza guztia ematen zuen enpresa bakar batean; orain, ordea, zure esku ez dagoen edozer dela-eta, lanik gabe geratzera eraman zaitzake. Krisi azken urteek erakutsi digute klase sozialez aldatzeko ERE batera gaudela. Orain dela urte batzuk, karrera eta master bana burututa eta ingelesez hitz eginda aldatuko ez zen gutxieneko soldataren bermea eskaintzen zizun. Eta lana ondo eginez, bazenekien ez zenuela galduko. Baina badira hamar urte hori aldatu zela. Ezagutzen ditut enpresetako zuzendariak izandakoak orain Cabify bat gidatzen dutenak. Gaur egun segurtasun gutxi bizi dugu"

(PALOMA BRAVO, IDAZLEA)

Gure Balioak Sarirako hautagaixak aurkezteko epea zabalik dago



lazko ediziñuan Julen Zabaletak jaso eban errekonozimendua.

Uztailaren 14ra arte aurkeztu leikez Gure Balioak Sarrixaren X. edizioñorako hautagaixak. Debarrenian giza balioak sustatziagaittik nabarmendu dan lagun edo entidadien jarduna publikoki aitortzeko asmuarekin antolatzen dau Debegesa garapen agentziak urtero sarixa. Debarreneko edozeiñek dauka sariduna proposatzeko aukeria, beti be aittatutako epe horren barruan aurkeztuta eta antolatzaillak eskatzen dittuen bete-biharrak bete ezkeru. Informaziño guztia eta hautagaixa aurkezteko formularixua debegesa.eus/gurebalioak webgunian dagoz eskuraragarri. Informaziño gehixagorako 943 82 01 10 telefonora deittu edo komunikaziõa@debegesa.eus helbidera idatzi leike.

Debarrena Integra-Bat Eginez programaren beste ediziño bat antolatu dabe

Armerixa Eskolakuak Debarrena Integra-Bat Eginez programaren 14. ediziñua antolatu dau, "baztertze egoeran duguazenedako". 2019-2020 ikasturtera begira ipiñi dabe martxan programia eta bi fasetan banatuta egongo da. Azaldu dabenez, "parte hartzen dabenak, lehen fasea egin eta gero, 1. maillako Profesionaltasun Ziurtagirixa egin ahal izango dabe". Lehen fase horretan gaztelera intentsibua eta konpetentzia matematikuak irakatsiko dittue (198 ordu) eta klasiak Eibarko CEPAn izango dira, iraillaren 16tik urtarrillaren 24ra bittartian. Bigarren fasean, barriz, "FMEE0108_Fabrikazio Mekaniko Eragiketa Osagarriak" profesionaltasun ziurtagirixa irakatsiko dabe. Ikasliak Armerixa Eskolan jasoko dittue klasiak (400 ordu), abenduaren 18tik ekaiñaren 3ra arte eta, gaiditzen dabenak, praktika profesional ez laboralak egingo dittue. Programan parte hartu nahi dabenak lan-eskatzaille



modura Lanbiden izena emon biharko dabe eta, horrekin batera, 16 urte izatia eta Debarrenian bizitzia eskatzen dabe. Sarbideproba iraillaren 9xan egingo dabe, 11:00etan Armerixa Eskolan eta, Lanbiden ez eze, Armerixa Eskolako webgunian (www.armeriaeskola.eus) izena emon biharko dabe aurretik.



Ingeniaritza Eskolakuak Madagaskarreko irakasle bat hartu dabe atzera be

Madagaskarreko Université D'Antananarivotik atzera be bisitan etorri dira Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalera. Oinguan Harimalala Razanamanampisoa aittatutako unibertsidadeko irakaslia hartu dabe, MADEEHI naziñoarteko proiektuari (Erasmus+ KA2 "Capacity Building") lotutako biagian. Izan be, irakasliak energixia, ura, etxebizitza eta teknologixa barrixak kudeatzeko gaitasunak indartzia helburu modura dittuan "Coopération et innovation pé-

dagogique : Eau- Energie-Habitat à Madagascar (MADEEHI)" izeneko proiektuan parte hartzen dau Madagaskarren. Eibarren emon zittuan egunetan Ingeniaritza Eskolako laborategi eta instalaziñuak ezagutzeko aukeria izan eban, bestiak beste. Argazkixan, Mirari Antxustegi (GIE-Eibarko Antolakuntza Akademikoko zuzendariordia), Harimalala Razanamanampisoa (Madagaskarreko Université D'Antananarivoko irakaslia) eta Jalel Labidi (GIEko ikertzaillia).



Tatuajiak egitten batutakua entregau dabe

Sanjuanak baiño lehen primerako oparixa jaso eben AFESD diagnostiko bariko gaixotasunen bat daken umien famelixakuen alkartiak eta Berritxuak gaixotasun arraruak ezagutzera emoten laguntzen daben alkartekuak. Izan be, bixeri laguntzeko asmuarekin Astelena frontoian tatuajiak egitteko jardunaldixa antolatu eben Arata-ttoo-ko Javier Garciak eta Raket Santanak bakotxari 5.000 euroko txekia emon zetsen, jardunaldixan batu eben dirua erdibittu eta gero.

San Juan sorbak bedeinkatu zittuen Azitaiñen

Urtiotako ohittuari eutsi detse aurten be Azitaingo elizan eta, azken urtitan bezala, San Juan eguna ospatutako mezan sorbak bedeinkatu zittuen erretratuan ikusten dittuzuenak. Baten batek argazkixaren kopixarik nahi izanez gero, Untzagan daguan lkatz dendara jua eta han eskatu lekiuala emon dabe aditzera junta parrokiakuek.



autuan



"1969 KINTADA" EKITALDIRAKO IZEN-EMOTIA

Urriaren 26xan ospatuko dan "Eibarko 1969 Kintada" ekitaldixan parte hartzeko izen-emotia zabalik dago. Parte hartzen dabenak Hotel Unzaga Plazan bazkari ederra jango dau, ondoren DJ baten kontzertuarekin gozatu ahal izango dau eta bazkalaurretik eta ondoren beste hainbat ekintza be egongo dira. Izen-emotia modu ofizialian egitteko, 95 euro sartu bihar dira La Caixa-n, ES39 2100 4168 75 21 0035 2191 kontuan, izen-abizenak ipiñitta. Ahal bada, antolatzailliak ordaiñagirixa emaillez (1969eibar@gmail.com) bidaltzia eskertuko leukie.



ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus



EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
Funeuskadi



IDURRE
 IRIONDO



Rikardo Errastik eta Jokin Egañak irabazi eben marmitako lehiaketia

Hamabi bikotek hartu eben parte Sanjuanetako 26. marmitako lehiaketian eta Errastik eta Egiak lehen sarixa bereganatu eben, Teodoro Serna eta Paqui Lorenzo Kantabriako Etxeko ordezkariaren aurretik. Eta hirugarren tokian geratu ziran Txirikil alkarteko Josu Cristobal eta Peru Unamuno. Epaimahaikuak lan gatxa euki eben irabazliak aukeratzeko orduan, euren berbetan "preparautako kazuelak goi maillakuak" izan ziralako.

Erresidentzietako bihargiñak Elgoibarreraíño oiñez juan ziran protestan

Gipuzkoako erresidentzietako eta eguneko zen-truetako bihargiñak oiñezko martxari ekin zetsen Untzagan aurreko asteko eguenian, Elgoibarreraíño juan eta hango udaletxe parian amaitzeko. Esandakua arabera, "dagoeneko 73 greba egun egin ditugu Gipuzkoako erresidentzietako bihargiñok eta burrukatzen segiduko dogu, greba uztaillaren 12ra arte luzatzia erabagi dogu eta. Gure sektorerako lan baldintzak hobetziarekin batera, zerbitzuaren kalidadia hobetu nahi dogu". Asmo horrekin, Gipuzkoan zihar 6 etapako ibilbidia egin dabe eta Donostiako Bulebarrian bixar amaittuko daben kanpaldixa egi-tten dihardue atzoz geroztik.



Jorge Astigarraga Zabala "Gorka"

2019ko uztaillaren 1ean hil zen, 61 urterekin

*"Eraman gaitzazu zure ametsetan guk guretan eramango zaitugun bezala eta, horrela, elkarrekin jarraituko dugu betirako.
 AGUR GORKA, EZ ADIORIK"*

ZURE LAGUNAK

Askatasun eta Aniztasun Sexualaren banderia igo eben Untzagan

Aurreko barixakuan, ekaiñaren 28xan, mundu osuan bildu ziran LGTBI kolektiboko kidiak, atzera be euren esku-bidiak errebindikatzeko eta, aniztasunetik abiatuta, bizikidetzaren alde egitteko. Eibarren be, azken urtiotan lez, Untzagan ortzadarraren koloriak dittuan banderia igo eben eta, jarraixan, Eibarko Gehituko ordezkariak aurtengo manifestua irakorri eben.



Sahararen aldeko liburu azokia egingo dabe asteburuan

Eibar-Sahara alkartekuk erabillittako liburuak ipiñiko dittue salgai Untzagan, alkartiak urtian zihar antolatzen dittuan jarduerendako dirua biltzeko asmuarekin. Asteburu osuan zabalduko dabe azokia: gaur arratsaldian 17:30xetatik 20:30xetara; bixar egun osuan, goizeko 10:30xetatik 20:30xetara; eta domekan, barriz, 10:30xetatik 14:00xetara. Horrekin batera, alkarteko boluntariak azokan egongo dirala aprobetxauta, Oporrak Bakean programarekin uda hamen pasatzera etorri diran haur sahararrendako (6-14 urte bittartekuk) erropak, zapatillak eta txankletak be jasoko dittuela jakiñarazi nahi detse jendiari.

61 urteko eibartarra hil zan astelehenian AP-8 autobidian gertatu zan istripuan

Eibarko bizilaguna zan astelehen goizian AP-8 autobidian izandako istripuan hil zan 61 urteko gizona. Ezberrara 07:50ak aldera gertatu zan, Deba parian, 59. kilometruan Iruñerako norantzan. Azaldutakua arabera, motorrak laban egin eta gidarixa lurrera jausi zan eta hantxe bertan hil zan motorzalia. Istripuaren eragiñez, errei bat itxi bihar izan eben eta 4 kilometroko auto illarak sortu ziran.

Pagatxak Berliñen izan dira

Pagatxa alkarteko 100 andra Berliñen egon ziran ekaiñaren 14tik 17ra bittartian, Alemaniako hiriburuan dagozen toki eta monumento adierazgarrirenak bertatik bertara eza-gutzeko asmuarekin antolatu eben bidaian. Bestiak beste Berlingo harresixa, Brandenburgoko atia, judueri eskindutako monumentua, Gizaterixaren Ondarea izendapena dakan Museuen Irla, Operia eta Katedrala ikusi zittuen eta, gaiñera, etxera bueltau baiño lehen, jauregixengaittik ezaguna dan Potsdam hirira ekursiñua egitteko denporia euki eben.



ALBERTO YARZA ARRIZABALAGA

1. URTEURRENA: 2018-VI-26

"Inoiz ez zaitugu ahaztuko. Betiko gure bihotzetan"

ETXEKOAK

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da uztaillaren 7an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokan.





Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek euren azken lana aurkeztuko dabe domekan 18:00etan.

Dorrietatik Amañako plazaraiño egingo dan kuadrillen jaitsierarekin hasiko dira **gaur** aurtengo Amañako jaiak, 18:30xetan, Ermuko Irulitxa txarangaren laguntzarekin. Ordu erdi geruago, 19:00etan, jai-hasierako txupinazua jaurtiko dau Oskar Artetxe amañatarrak. Eibar FT-ko jokalarixa izandakuak. Gogotsu dago Artetxe, oin Amañan bizi ez bada be, auzokua sentitzen dalako. Jarraixan, kalejiria egingo dabe eta 20:00etan umiendako joko-jaialdixari eskinduko detse tartia, Gorritik atzera be ekarriko dittuan animalia txikixekin. 21:30xetan herri-afarixa hasiko da eta parte hartzeko aurretik izena emon biharko da Azkena tabernan. Gabeko 23:15etan Amañako jaiak hain ospetsu egin dittuan kontzertu itzela hasiko da, betiko moduan hiru talderen emonaldixarekin. Oin-guan Skakeitan, Esne Beltza eta Josetxu Pipe-

rrak & the Riber Rock Band izango dira goizaldera arte iraungo daben kontzertuaren protagonista. Hori bai, *"txosnan ogitarteko zerbitzua egongo da"*, antolatzailliak esan dabenez.

Zapatua ezin betiago etorriko jaku, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte iraungo daben artisauen lehelengo azokarekin. 14:30xetan herri-bazkarixa egingo dabe, *"azken urtiotan egin dan moduan, paelia dastatzeko"*. Arratsaldian umiendako parkia montatuko dabe, *"gaztelu puzgarriak*



eta guzti", eta 19:00etan oin dala urte batzuetako herri-sardinadia errekueratuko dabe. Tarte hori aprobetxatuko dabe *"Mexico Lindo Si Señor"* mariatxikuak, lehelengo kallejonadarekin eta jarraixan kontzertuarekin, euren onena emoteko. Gabian, 22:15etatik aurrera, helduen danborradak handik bi ordu-ra botako diran su artifiziale-tarako girua prestatzen juango dira. Suak amaituta, berbeniaren txandia izango da, Tribuo Pop taldiarekin.

AMAÑAKO JAIKAK atzian laga dittue lau hamarkada

Aurreko asteko barixakuan aurkeztu eben Amañako Laboral Kutxan batez be asteburu honetan garatuko dan auzo horretako jai-programaziñua. Ekitaldixa aprobetxatu eban Jose Antonio Alberdi jai batzordeko buruak hainbat omenaldi egitteko eta egitarauaren barri emoteko, betiko moduan lepo beteta zeguan buleguan. Aurten 41. ediziñua izango da batzordiak jaiak antolatziaeren arduria hartu ebal eta astebururako ekitaldixak *"danon jai-gogua asetzer a datoz"*.

Domekan mezia izango da Amañako elizan, *"Eibarren hildako guztien alde"*, oin-guan Sostoa abesbatzak lagunduta. Eta eguerdiko 12:00xetan saldia eta txorizua banatuko da, justu umien danborradia hasi aurretik. Arratsaldeko 18:00etan azken aldixan kalerik egin gabe Amañan izaten diran Pirritx, Porrotx eta Mari Motots *"munduko paillazorik onenak"* Musua euren azken lana aurkeztuko dabe. Amaieran txorizo-ogitartekuak eta txokolate-jana, sabela ondo betetzeko aukera egongo da. Eta jaiak agurtu aurretik, 20:00etan, Mugi Panderora Eibarko taldiaren emonaldixa izango da, adin guztietako jendia alaitzeko modukua. Datorren asteko barixakuan, bestalde, auzoko jubilatueendako bazkarixa egingo dabe Unzaga Plaza hotelian.

Amañako Laboral Kutxan egindako jai-programaziñoko aurkezpenian, Jose Antonio Alberdi *"Gomak"* eskerrak emon zetsen jaixen alde egindako guztieri eta diruz lagundu dabenei. Horrez gain, Juanma Cano eta Maite Lorenzo antzerkigilliak, Gorka Amutxastegi foballarixak, Amaiur Mayo errugbilarixak eta Txus jai-batzordiarekin hainbestetan kolaboratu dabena egindako lanagaittik errekonozimendua jaso eben, opari banarekin batera.



...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Kantabriako bertso-afariaren 27. edizioan Oihana Iguaran izango da debutaria. Amasa-Villabonakoa Arrate bezperako jaialdi horretan estreinatuko da eta azken urteotako hirukote finkoak lagunduko dio osatu beharreko emanaldian. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio ez dira faltako irailaren 7ko hitzorduan. Bestela, berrietasun gutxi: Jon Mikel Mujika izango da gai-jartzailea eta afaria 21:00etan hasiko da.



Egaña, Lujanbio, Lizaso eta Iguaran Arrate bezperako bertso-afarian

Maiala handiko bertsolariak izango dira berriro ere Arrate bezperako bertso-afarian. Aurten zapatuan izango da ...eta kitto!-k antolatzen duen ekitaldia: *"27. edizioa heldu gara eta mende laurdena atzean laga dugu. Baina bertsolariak gustora etortzen dira eta guk ere gogo handiz hartzen ditugu"*. Horren froga dugu Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak urteak daramatzatela kalerik egin gabe, Kantabrian batzen den bertsozale taldearen nahiak asetzen. Azken aldian Maialen Lujanbio ere fjoa bihurtu da osatutako kartelean. Oraingoa Harituz Bertsozale Taldeko Oihana Iguaren izango da berrietasuna, geratu barik goraka doan bertsolaria. 2017ko azken

Txapelketa Nagusiak finalurrrukoetara iritsi zen amasa-villabonatarra; aurretik, 2011n debutatu zuen Gipuzkoako txapelketan eta handik lau urtera, 2015ean, txapelketa horretako finalera heldu zen.

Bi hilabete pasatxo geratzen bada ere bertso-afari horretarako, azken urteotakoari jarraituta, ...eta kitto!-k sarrerak salgai jarri ditu bi txandatan: aurre-salmenta zabalduko da datorren astelehenean, hilaren 8an, eta bi astean aukera izango dute ...eta kitto!-ko bazkideek sarrerak eskuratzeko; hori bai, bazkide bakoitzak bi sarrera hartzeko aukera izango du. Epe hori hilaren 19an amaituko da eta hurrengo astelehenean aurrera salmenta librea izango da, jende guztiarentzat.

Sarrera horiek Sagar-Bitza eta Kultu tabernetan erosi ahal izango dira eta baita Kantabria jatetxean bertan ere. Aste biotako bazkideentzako salmenta, bestalde, ...eta kitto!-ko bulegoetan egingo da, honako ordutegian: goizeko 10:00etatik 14:30ak arte eta arratsaldeko 18:30etik 20:00-etara. Prezioan betiko bidetik joko dute: *"Bertso-afariak 33 euroko prezioa izango du. Bazkideen kasuan, euro bat merkeago erosteko aukera izango dute"*.

1993an ...eta kitto!-k antolatu zuen lehenengo bertso-afaririk (Juan Mari Narbaiza eibarrarrak parte hartu zuen bertan, Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin), Lizasok jarraitzen du izaten edizio gehien egin duena: *"Aurten 24.ez etorriko da. Egañak gertutik jarraitzen dio, parte-hartze bat gutxiagorekin. Hirugarren postuan kokatu da Maialen Lujanbio, aurten 11.ez Kantabriara etorrira, eta Mañu-kortari aurrea hartuta; azken hori 10 urtetan jarraian izan zen Arraten"*. Gai-jartzaile Jon Mikel Mujika izango da, bosgarrenez, aurretik Rafael Zubizarreta (urte askoan) eta Asier Ibaibarriagak egindakoari jarraituta.



Jon Mikel Mujika izango da gai-jartzailea aurten ere

Pradoko Museoa Untzagan

Velazquez, Goya, Tiziano, Caravaggio, El Bosco, Rembrandt eta beste hainbat margolari handiren lanak egongo dira ikusgai Untzagan hilaren 8tik 28ra. Pradoko Museoko paretetatik jaitsi eta Eibarrera egingo dute bidaia, artelanak herritarrengana hurbiltzeko asmoz. Madrilgo museoko 50 pieza esanguratsuenak jarriko dira herriko kaleetan eta artearen historian zehar ibilbidea egin ahal izango da.



"Maiztaren 3a Madrilen" edo "Fusilamenduak".

Pradoko Museoa 200 urte bete ditu aurten eta hainbat ekintza egiten dihardu museoa herritarrengana hurbiltzeko. Besteak beste, museoko pieza garrantzitsuenak Cuba, Nicaragua, Panama, Costa Rica, Bolivia, Peru, Paraguay, Filipinak, Amerikako Estatu Batuak, Ekuatorreko Ginea eta Espainiako hainbat udalerriara eraman dituzte (Jerez, Cartagena, Elx, Albacete, Zamora eta Palencia). Orain Euskal Herrira iritsi dira, Eibarrera hain zuzen ere. Untzagak 'Pradoko Museoa kalean' izeneko erakusketa jasoko du hiru asteetan, "museoak dituen margolaritza-bilduma aberatsen arteko bidaia birtuala", antolatzaileen berbetan.

Pradoko Museoa Espainia eta Europako museorik garrantzitsuenetarikoa da. 1819ko azaroaren 19an sortu zen Margoen Museo Erreala izenarekin eta 1920an hartu zuen gaur egungo izena. 5.000 margolan, 2.000 grabatu eta 70 eskultura inguru ditu. Eta Espainiaren, Europaren eta mendebaldeko artearen historiaren erakusgarri da, XII. mendetik XX. mende hasierarainoko lanak jasotzen dituelako. 2018an 2.892.937 bisita jaso zituen, baina



"Sortzez Garbia".

eibartarrek ez dute ilararik egin behar izango, plazara ekarriko dituztelako Juan de Villanuevak egindako eraikinean egon ohi diren artelanak.

Tamaina errealeko argazkiak

Artearen historia eta Pradoko Museoren aberastasun artistikoa ezagutaraztea da Eibarren egingo den erakusketaren helburua. Museoko bildumetako 50 lan esanguratsuenen argazkiak egongo dira ikusgai Untzagan 1/1 eskalan, hau da, tamaina errealean. "Museoko koadroen aurrean egotea bezala izango da, koloreen aberastasunaz, pintzelada sutsuez, argi-joko bikainez eta margoetan dauden aurpegi liluragarriez gozatzeko aukera edukiz", Miguel Falomir Pradoko Museoko zuzendariaren berbetan.

Artearen inguruko ezagutza bultzatu eta Pradoko Museoa dauden lanak ezagutarazteko asmoz, Untzagan ikusgai egongo diren lanek koadroen inguruko informazioa jasotzen duten kartelak izango dituzte alboan, eta museoaren historiaren eta bertan aurkitu daitezkeen kolezioei buruzko informazioa ere emango dute. Gainera, bi-

sita gidatua, hitzaldiak eta bestelako ekin-tza dibulgatzaileak egingo dira erakusketa-ren aukera hezigarriak bultzatzeko asmoz.

Lau margo-eskola

Erakusketa lau zatitan banatuko da: Espainiako pintura, Italiako, Flandriako eta beste eskoletakoak. Espainiako pintura da Pradoko Museoan ondoen ordezkatzen den margo-eskola. *"Logikoa da"*, Pradoko Museoko prentsa oharrak adierazten duenez. Bilduma honek 5.000 artelan inguru batzen ditu eta horietako 23 ikusiko ditugu Eibarren. Grekoa, Goya, Zurbaran, Velazquez, Murillo eta Sorollaren lanak ekarriko dituzte Untzagara, besteak beste, XII. mendetik XIX. mendera arte estatuko artistek estilo ezberdinetan (gotikoa, neoklasikoa, pintura soziala...) egindako lanak erakutsiz, Urrezko Mendea barne (XVII. mendea). Batzuk aipatzekotan: 'Meninak' (Velazquez), 'Maja biluzia' (Goya), 'Saturno bere semea iresten' (Goya) eta Hirutasun Santua (Grekoa).

Italiako eskolak toki garrantzitsua du Pradoko Museoan. *"Artelan kantitateagatik eta euren kalitatearengatik museoko bigarren bilduma nagusia dela esango genuke"*, museoko arduradunen berbetan. Artelan gehienak Espainiako mugetatik kanpo lortu zituen museoak, Espainiako erregeen enkarguz. Trecentoa (XIV. mendea) eta Quattrocentoa (XV. mendea) dira bilduman gutxien ordezkatuta dauden sasoiak, baina Fra Angelico, Botticelli, Antonello da Messina eta Mantegnaren koa-



"Meninak".

droak daude. Cinquecentoari (XVI. mendea) dagokionez Rafaelen eta Correggio-ren margoak daude, baina Veneziako pinturak du ordezkaritza nagusia Tintoretto, Veronese eta, batez ere, Tizianorekin. Bere margoek Espainiako margolaritza baldintzatu zuten. Bestetik, Italiako pinturara barrokoak ere hainbat ordezkariz izango ditu Eibarko erakusketan: Caravaggio, Gentileschi eta Tiepolo.

Italiako pinturak Pradoko Museoan duten garrantziaren antzeko mailan jarri daitezke Flandriako eskolako artelanak. Carlos I.a errege bihurtu zenean Herbehereak

Espainiako koroaren menpe geratu ziren eta hango margolanek monarka espainiarak erakarri zituzten Van der Wyden, Campin eta Memlingen lanak eskuratze-raino. Felipe II.a erregeak Bosch lan asko bildu zituen eta baita Patinir, Bruegel 'Zaharra' eta Antonio Moro erretratugilearenak ere. Gainera, Rubens, Van Dyck eta Jordaensen lanak ere ikusgai daude.

Azkenik, Untzagako erakusketak beste eskola batzuetako margolarien hainbat lan ere jasoko ditu: Poussinen 'Parnaso', Dureroaren autoerreturua eta Rembrandten 'Judit Holfernesen otorduntzan'.



"Atseginen baratzea" triptikoa.

Euskal Herriko ijito herriaren hainbat ordezkari egon ziren Eibarren joan den zapatuan Ignacio Zuloagari egindako omenaldian. Tartean Juan Carlos Jimenez Barrul egon zen, Kamelamos Adikerar ijito elkartearen arduraduna. Ijito kulturaren sentsibilizazio eta zabalkundeaz arduratzen den elkarte da, eta motxaileek bizi duen errealitatearen berri eman digu Jimenez Barrulek.

**JUAN CARLOS
 JIMENEZ BARRUL**
 (Kamelamos Adikerar):

“Motxaileak gara, baina baita euskaldunak ere”

- Zer moduz egon zen zapatuko ekitaldia?

Oso ondo. Ijito herriak esker ona zor dio Ignacio Zuloagari, beti egon zelako ijito herriaren alboan eta motxaileak beti defendatu zituelako. Oso ekitaldia hunkigarria izan zen. Gainera, Ignacioren birbiloba egon zen. Ignaciok ijitoekin zuen harreman ona berreskuratu nahi du

Zuloaga familiak, ondo dakitelako Ignaciok nolako garrantzia duen ijito herriarentzat. Ignaciok asko maite zuen gure herria eta maitasun harreman hori jarraitu nahi du haren familiak.

- Nolako garrantzia du ijito herriarentzat Ignacio Zuloaga bezalako ospe handiko margolari batek zuen herria bere koadroetan islatzeak?



Guretzat oso garrantzitsua da, ijito herria benetan nolako den islatu zuelako. Balioak dituen herria gara, sentimendu positibo eta onak dituen etnia, eta Zuloagak oso modu ederrean erakusten zuen hori. Oso ondo egiten zuen berba motxaileen inguruan han eta hemen. Motxailak azaltzen diren hainbat koadro margotu zituen eta ijitoen bizikide izan zen.

- Kaloz ere egiten zuen berba, ezta?

Hori da, ijitoek iberiar penintsulan erabiltzen dugun hizkuntza ezagutzen zuen. Kaloa Romaniaren dialektoa da, ijitoen jatorrizko hizkuntzatik eratorria.

- Gaur egun Ignacio Zuloaga bezalako pertsonak falta dira ijito herriaren errealitatea kontatzeko?

Zuloaga asko falta zaizkigula uste dut. Jazarpena eta tratatu txarrak jasan dituen herria da motxaileena. Ez gaur egun bakarrik, hainbat mendetan gertatu den zerbait izan delako. Ijito herria oso estereotipatua dago eta gizarteak modu negatiboan ikusi izan gaitu, baina egia esan gizarteak ez du benetan ijito herria ezagutzen.

Ezjakintasun handiarekin egiten da berba motxaileen inguruan. Estigmatizatuta gaude. Gezurra dirudi gaur egun ere gizartean aurreiritzi horiek mantentzea, gaudituta egon beharko lukeena uste dut. Ijitoa zarela esaten baduzu, arazoak dituzu, etiketatu egiten zaituztelako berehala. Adibidez, etxea alokatzeko orduan motxailea zarela esaten baduzu, ez dizute alokatzen. Beste modu batean begiratzen zaituzte motxailea zarela dakiteanean. Nik ijito ez den pertsona askorekin izan dut harremana eta batzuk konfiantza galdu zuten ijitoa nintzela jakitean, urrundu egin ziren, nahiz eta nire portaera beti ona izan den. Ikusten duzunagatik epaitu behar nauzu, ez besteek diotenagatik. Zuloagarren Zumaiako etxean egon nintzenean, adibidez, bere idatzi batzuk irakurri nituen, non ijitoei buruz berba egiten zuen. Ijitoen irudi erreala erakusten zion gizarte-

“Ezjakintasun handiarekin egiten da berba ijitoen inguruan”



Motxaileen ordezkariak, Zuloaga familia eta erakunde publikoak egon ziren pintoreari egindako omenaldian.

ari, positiboa, eta horrek asko lagundu zion ijito herriari. Horrelako ekimen gehiago behar ko genituzke.

- Kamelamos Adikerar elkar-teak funtzio hori dauka? Iji-toen errealitatea nolakoa den gizarteratzea?

Bai. Errenterian dugu egoitza eta hainbat ekintza antolatzen ditugu motxaileen kultura ezagutzera emateko eta elkarbizitza sustatzeko. Adibidez, Ijito Kultura Astea antolatzen dugu urtero eta herritarrak katera gonbidatzen ditugu gurekin elkarrizketan jarduteko, ijito herriaren historiaren inguruan berba egiteko... Guk geure burua aurkeztu nahi diogu gizarteari, esterotipoak apurtzea, eta hortik aurrera beste en esku egongo da gure inguruan zein iritzi eduki. Ezagutza ona eta errespetua izanez gero, elkarbizitza perfektua edukiko genuke.

- Nolakoa da gaur egungo elkarbizitza?

la ez dago elkarbizitzarik. Zure burua ijito moduan identifikatzen ez baduzu, ez duzu arazorik edukiko. Baina motxailea zarela esaten duzunean hasten dira arazoak, estereotipoen ondorioz. Aspalditik ezagutzen nuen taxi gidari batek esan zidan ni ezin nintzela ijitoa izan, normala nintzelako. Harrituta geratu nintzen. "Nola esan dezakezu horrelako astakeria bat?", esan nion. Ijitoa izateagatik gaizkilea izan behar naiz? Ezta gutxiago ere. Noski, badaude gaizkileak diren ijitoak, kultura eta herri guztietan gertatzen den bezala, baina horregatik ezin da herri bat estigmatizatu.

- Ijito Kulturaren Asteaz gain, zein beste ekintza egiten duzue elkartean?

Elkarbizitza arazoak daudenean esku hartzen dugu eta arazoak zergatik sortzen diren aztertzen dugu gehiagotan ez gertatzeko. Kasu askotan ulermen arazoak izaten dira, alde batek bestea ulertzen ez due-



Juan Carlos Jimenez eta Alberto Etxaluze kazetaria motxaileen banderarekin.

lako eta alderantziz. Bestetik, flamenko lehiaketa bat antolatzen dugu baita ere. Flamenkoa kulturarteko zubia da eta harremanak sendotzen ditu. Estatutik etorritako flamenkokantariak hartzen dute parte

"Flamenkoa kultura arteko zubia da eta harremanak sendotzen ditu"

keraz egiten dute eta flamenkoaz gain kantu euskaldunak abesten dituzte. Euskal kultura maite dugu.

- Erromintxela (ijito euskaldunen hizkera) erabiltzen duzue oraindik?

Hilzorian dagoen hizkuntza da erromintxela, baina badaude erabiltzen duten motxaileak. Erromintxelaz egiten zuen gizon bat ezagutu nuen behin eta harrituta geratu nintzen, ez nuelako hizkuntza ezagutzen. "Gizon honek kaloa eta euskera nahasten ditu", esan nion anaiari.

- Ijito herrian aldaketak izan dira belaunaldi berriekin azken urteetan?

Ikasketa kontuetan hobekuntzak egon dira gure komunitatean, herri moduan aurrera egin nahi dugulako. Aldaketak egon dira, baina gure nortasuna galdu barik. Gizarteak eskaintzen dituen gauza onak hartu ditugu. Ikasketa barik ezin dugu aurrera egin eta belaunaldi berriek formakuntzaren aldeko pausoak eman dituzte. Gainera, gure elkartean ere behin eta berriz esaten diegu ikasketak edukitzea oso garrantzitsua dela.



Kezkakoek aureskua egin zuten zapatuko ekitaldian.

eta abeslari euskaldunak ere egoten dira.

- Sonacay taldea da aipatzen duzun zubi horren erakusle nagusia?

Duda barik! Sonacay taldeak oso ondo ordezkutzen gaitu. motxaileak gara, baina baita euskaldunak ere. Hemen jaio gara, gure seme-alabek eus-

*jesus gutierrez*

1869ko Eibarko Itun Federalaren garaian ere gure hiria progresismo edo aurrerabidearen lehen lerroan zegoen, Espainian erreferentziatzko

Eibar, hiri aurrerakoia

Eibarko historiari buruzko berri aipagarrienak kontsultatuz gero, edozein dela ere erreferentzia, beti agertuko zaigu lehen tokian 1931ko apirilaren 14ko II. Errepublikaren aldarrikatzea. Gertaera hori hainbat baldintzaren emaitza edo fruitua izan zen, ez zen kasualitateak eragindakoa. Eibar tradizio aurrerakoia zuen (eta du) eta horrek bideratu zuen orduko gorabehera guztiek egun hura historiara pasatzea.

Aurretik ere, 1869an, herriak bizi izan zuen orain ospatu berri dugun efemeridea: Eibarko Itun Federalaren 150. urteurrena, hain zuzen. Ekimen hori 1868an sortutako Alderdi Errepublikar Federala sustatzeko asmoarekin egin ziren itun serie baten barruan zegoen. Azken helburua Espainiaren modernizazio politikoa zen, ordurako zaharkitutako monarkiaren ordez errepublika progresista-

ri tokia egiteko. Monarkia eztabaidagai bihurtu zuten, erlijioarekin egin zuten moduan, eta bi gai horiek kuestionatzen hasi ziren lehen aldia izan zen.

150 urte geroago, gezurra badirudi ere, eztabaida horiek mahai gaineratzea zalantzan jartzen dute Espainiako gizartearen sektore batzuek, balore nazional eta tradizionalak diren aitzakiarekin. 1869ko federalismoak lurraldeak nazio bihurtzeko artikulazioaren alde egiten zuen, beti ere itun bidez egindako etapei jarraituz, eta horrek monarkia garaitik Espainian nagusi izan zen tradizioarekin talka egitea ekarri zuen. Bada 1869rako, ordurako jada, Eibar progresismo edo aurrerabidearen lehen lerroan zegoen eta erreferentzia izan zen Espainia guztian. Ez dezagun ahaztu nondik gazozen, non gauden eta nora heldu nahi dugun.

*enrike sosola*

Ingurumena kudeatu eta, euskeraren arnasmune izateaz gain, energia sortzaile ere izan liteke baserria, jakina, aza-ekoizle izateari utzi gabe

Azak eta energia

Xabier Arzallus-en profezia izan zen: “Lemoizko Zentral Nuklearra eraiki ezean, aza baino ez dugu jango”. Eta bai asmatu ere politikari zendu berriak. Izan ere, energia fosilaren aroa amaitzeaz da. Petrolio merkearen zibilizazioarenak egin du. Hemen dugu deshazkundera: batzuk, lan bikoitza egin behar bizitzamaila berari eusteko; eta besteak, pobreziatik irten ezinik lanean jardun arren. Eskerrak erregai fosilen belaunaldiekoei “koltxoia-ri”, bestela, gaixoak gu! Bestetik, beganismoaren izurritea hedatzen ari da azkoitiar igarleak aurrikusi bezala. Eibarren bertan, kontsumo-elkarte modakoaren izenari begia botatzea baino ez dago mugimenduaren indarrak ohartzeko: Azataporru. Aldi berean, Trantsizio Energetikoaren ideia, antisistema etxekalteen burutazio izatetik, ministeritza eta jaurilarizetara igaro da. Hori gutxi balitz, klima-aldaketa eta CO₂ isurketen aurkakoen mugimendua lurrikara soziala bihurtu da Greta Thunger nerabearen eskutik.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako hainbat baserriar elkartu eta “Energia Sortzen” izeneko proiektu pilotu txikia jarri dugu martxan. Goiener kooperatibaren aholkurlaritzapean, baserrien energia-kon-

tsumoaren diagnostikoa egin eta autohorniketarako aukerak aztertu ondoren, orokortu daitezkeen konklusio interesgarriak atera ditugu. Besteak beste: inbertsio txikiekin aurrezpen esanguratsuak lor daitezke baserriek dituzten energia-iturri berriztagarriak erabiliz. Horrela, baserriaren errentagarritasuna hobetzeaz gain, zenbait kasutan, soberakina merkaturatzeko aukera izango litzateke.

Beraz, arriskuen garaian aukera berriak azaltzen dira. Ingurumena kudeatu eta euskeraren arnasmune izateaz gain, energia sortzaile ere izan liteke baserria, jakina, aza-ekoizle izateari utzi gabe. Izan ere, aza-jendea gara euskaldunak: Portugaletik Suediaraino arku atlantiarreko kide gara kulturalki, edo behintzat, hala beharko genuke, hau da, pragmatiko-arrazionalak eta ez hain latino-emozionalak. Honakoan ere asmatu ote zuen ba Xabier Arzallus-ek? Alegia, OTAN/NATO/*IAIE-n sartu behar genuela esatean, horixe zuen buruan? Aza atlantiarra?

*IAIE (Iparreko Azajaleen Itunaren Erakundea)

P.D.: Agerre-azpiko Joanjo-ren udako aza-buruak, aspaldian jan ditudan goxoenak. Jan aza eta uda ona pasa!!

UEUren 47. Udako Ikastaroen barruan eta puntuEUS fundazioarekin elkarlanean, "Kaixo Mundua: Teknologiaren erabileratik sormenera, konpetentzia digitala ikastetxean lantzeko estrategia eta balibideak" izeneko ikastaroa hartu berri du Markeskua jauregiak. Leire Palacios Egiguren Puntu EUS Fundazioko proiektu kudeatzailearekin eta Euskadi Irratiko Sarean irratsaioko arduradunarekin elkarrizketa egin dute UEUkoek ikastaroa hasi aurretik.

- Zer da Kaixomundua.eus proiektua?

Kaixomundua.eus hezkuntza komunitatean konpetentzia digitalak garatzeko proiektu bat da, eta horretarako batetik konpetentzia digitalak lantzen dira eta bestetik sormena. Azken batean, ikasleei eskatzen zaiena da wordpress-aren bitartez webguneak sortzea eta webgune horiek gustora sortzeko egingo dutena da euren eremuetara eraman; haiei gustatzen zaizkien gauzetara eraman. Izan daiteke herriarekin lotutako zerbait, edo euren gustoko bestelako gauzak.

- Nondik sortu da? Zein beharrezko-tatik?

Kaixomundua.eus dator batetik beharretik, eskola komunitatean ikusi zelako beharra zegoela maila ezberdinetako ikasleek konpetentzia digital horiek garatzeko eta modu praktikoan garatzeko; baina kasu errealekin garatzeko. Beste alde batetik, erreferentzia bezala punt-CAT-eko "Webs al punt" proiektua hartu da. Egia da ez direla erabat berdinak, azken batean "Webs al punt-ek" badauzkalako bederatzi bat urte eta Kaixo Mundua aurten pilotatu dugulako.

- Aipatu duzun modua 2018-2019an jarri da martxan proba pilotua. Zer nolako esperientzia izan da?

Kaixo Munduaren proba pilotua egin da Euskal Herriko lau puntu ezberdinetan. Gasteizeko Egibiden, Arrasateko Arizmendi ikastolan, Ondarroako institutuan eta Lekeitioko institutuan. Toki bakoitzean maila ezberdinetan egin da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta

LEIRE PALACIOS: "Teknologia berriekin harremana dauka, baina transbertsala da KAIXO MUNDUA"



Lanbide Heziketan. Maila guztietan ikusi da funtzionatzen duela. Guztietan ikusi da maila ezberdinetara egokitzeko aukera daukan proiektu bat dela. Azken finean, ikasleak direlako langa jartzen dutenak. Gero beste alde batetik ere ikusi da sortutako baliabideak, bai ikasleentzako eta bai irakasleentzako, baliagarriak direla. Hau da, bertatik ateratzen dugun irakurketa oso ona da. Badaude gauza batzuk; adibidez euskarazko pluginak ez daudela, edo erreminta digital jakin batzuk euskaratzeko beharra daukagula; baina, berez, proiektuaren edukia eta proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren tresna eta gaitasun horiek badira nahikoak. Ikusi dena da hain justu ikasi dutela, oso ondo baloratzen dutela proiektua, eta era berean errealitatearekin lotutako proiektua izanik, askoz hobeto funtzionatzen duela. Askoz motibatuago lan egiten dutela ikasleek.

- Esperientzia guzti hori hartu eta ikastarora nola ekarri duzue?

Ikastaroa oraindik ere Kaixo Mundua ezagutzen ez duten irakasleei eta Kaixo Mundua ikasgelara zelan eraman ez dakiten horiei zuzenduta dago. Zergatik? Ba-

"Kaixomundua.eus dator beharretik, eskola komunitatean ikusi zelako beharra zegoela maila ezberdinetako ikasleek konpetentzia digital horiek modu praktikoan garatzeko"

dakigulako batzuetan gauza berriak martxan jartzen direnean, formazioa behar dela batetik; eta gero, beste alde batetik, informatika irakaslea izateko formakuntza ere oso ezberdina izan daitekeelako. Askotan pentsatzen dugu zelan teknologia berriak diren ardatza, informatikako arlora bideratuta dagoela, baina beste edozein arlotan ere egin daiteke. Transbertsala izan daiteke Kaixo Mundua. Hau da, historiako irakasle batek Kaixo Mundua martxan jartzea dauka; teknologia berriak ematen dituen irakaslearekin; eta egiten dituzten proiektu horiek historiakoak izatea. Alde horretatik, berez, teknologia berriekin harremana dauka eta horrekin heretsiki lotuta dago, baina era berean transbertsala ere bada. Horretarako, formakuntza beharrezko dela ulertzen dugu.

Olatz Mandiola (Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradu ikaslea):

“Zizeilua gaur egungo bizimodu eta beharretara egokitu dugu”

Olatz Mandiola eibartarrak “HAU Euskal Herriko Objetu tradizionalaren diseinu lehiaketa” irabazi du “Zura” proiektuarekin. Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradu ikaslea da Olatz Mondragón Unibertsitatean, eta bere gelako beste bi ikaslerekin, Uxue Aristimuño eta Amaia Baztarricarekin aurkeztu da lehiaketara. Zizeilua, Euskal Herriko baserrietako objektu tradizionala gaurkotu dute, egungo bizimodu eta beharretara egokituz.

- Zeinek antolatzen du lehiaketa eta nola izan zenuten horren berri?

Bitamine Faktoriak antolatu du hirugarrenez, San Telmo museoaren, Aranzadi Zientzia Elkartearen, Mondragón Unibertsitatearen eta Ramirez i Carrillo estudioaren laguntzarekin. Lehiaketarekin San Telmo museoeko pieza tradizionalak nabarmendu nahi dira. Objeto klasiko bat hartzen da eta XXI. mendera egokitzen da, ideia lehiaketa baten bidez. Aurreko urteetan “taloaskea” eta “kutxa” berrinterpretatu behar izan ziren, eta aurtengo ediziorako aukeratutako pieza “zizeilua” izan da. Unibertsitateko diseinu irakasleak lehiaketaren berri eman ziren eta gure ideia aurkeztu genuen. Gradu honetan egunero erabiltzen ditugun produktuen diseinua hobetzen ikasten dugu. Guztira 30 proposamen egon dira, eta gureak irabazi du.

- Zer da zizeilua eta zein izan da zuen proposamena?

Zizeilua baserrietako sukaldeetan beheko suaren ondoan egoten zen funtzio anitzeko altzarria zen. Familia bertan elkartzen zen. Bere ezaugarrietako bat da bizkarralde oso altua daukala. Funtzio bat zeukan: sua mantentzeko haizea sartzea beharrezkoa zen, eta haize horretatik babesten zuen bizkarralde altu horrek. Bestalde, mahai abatible edo eraisgarri bat izaten zuen, bertan bazkaltzeko. Guk bere ezaugarri nagusiak mantendu



nahi izan ditugu, baina egia da bizkarralde altuak gaur egun ez daukala funtzio bera. Asko aldatu da bizimodua. Bestalde, oso altzarria handia zen, eta gaur egungo etxeetan erabiltzea ezinezkoa litzateke. Horregatik portxeetan eta oro har kanpoko espazioetan erabiltzeko moduko proiektua landu dugu.

- Disenua, beraz, gaurko bizimodura egokitu duzue.

Praktikotasuna hartu dugu kontuan, eta baita alde estetiko ere. Bi habe eta hiru ohol ditu eta txapekin lotuta dago. Piñu-egurrak aukeratu dugu. Moderno itxura emateko, diseinu sinplea eta kolore argia erabili nahi genuela argi genuen. Zizeilu tradizionalaren mahai eraisgarrien ideari eutsi diogu,

eta gaur egungo tresna elektronikoak erabiltzeko oso aproposak diren bi mahaitxo jarri ditugu, alde bakoitzean bat: jira egin daitezke eta baita makurtu ere. Bururdi edo kojinekin goxotasuna eta kolorea eman diogu.

- Horrelako esperientziekin nolako garrantzia daukate zuentzako?

Ez gara profesionalki honetara dedikatzen, oraindik ikasleak gara, eta horregatik ez genuen espero lehiaketa irabaztea. Sorpresa handia izan da. Donostiako San Telmo Museoan ospatu zen ekitaldian eman ziguten saria. Gure proiektua San Telmon bertan dago ikusgai. Poster bat jarri dute gure disenuen argazkiekin eta azalpenekin. Uda guztian egongo da.

**JOSE ANTONIO
CARRERO SÁNCHEZ**

2009/07/01
10. URTEURRENA

“Zure irribarrea da gure ondarea”

MAITE ZAITUGU

Familia eta lagunak



Hasi da EuskarAbentura 2019 espedizioa!

Euskal Herriko zazpi lurralde-
etako nahiz diasporako 16-
17 urte bitarteko 121 neska-
mutil euskal geografia, kultura
eta historia lagunartean ezagu-
tzera eramango dituen oinez-
ko espedizioa da EuskarAben-
tura. Astelehenean abiatu zi-
ren eta, hilaren 31ra bitartean,
31 etapa osatuko dituzte, 783
kilometro orotara, horietako
483 oinez. 2019ko hau biga-
rren ekitaldia izango da.

laz bezalaxe, aurten ere Do-
ne Jakue bide ezberdinak jarraituz,
Euskal Herria luze-zabal zeharkatuko
dute, Maulen hasi eta Getxo helmuga hartuta.
Izan ere, EuskarAbentura 2019
espedizioa ibilbidearen %95
baino gehiagok Donejakue bi-
deko hiru adarretan egiten du
aurrera: bide frantsesa Maule-
tik Vianaraino, barnealdeko eus-
kal bidea Gesaltzatik Iruneraino
(kontrako norabidean) eta eus-
kal kostaldeko bidea Baionatik



Astelehenean ekin zioten espedizioari 121 parte-hartzaileek, denak Maulen elkartu eta gero.

Getxoraino. Hiriburu guztiak ez
ezik, UNESCOk Gizateriaren
Ondare izendatutako guneak bi-
sitatuko dituzte; bai eta basoak,
hondartzak, museoak, gari-so-
roak, leizeak, portuak, gazte-
luak, belartzak, monumentu

nahiz eraikin enblematikoak,
herriak, gatzagak, baserriak...

Era eta eduki anitzeko min-
tegi, tailer eta ekimenek, 50
baino gehiagok aberastuko du-
te abentura. Izan ere, hainbat
esparrutako profesionalak
(musikariak, soziolinguistak,
aktoreak, bertsolariak, kazeta-
riak, dantzariak, idazleak, kiro-
lariak...) aldiro-aldiro batuko di-
ra espedizioa gazteekin ordu
batzuk konpartitu eta askotari-
ko jakintzak elkar trukatzeko.
Tartean, uztailaren 24an Zarau-
tzen 'Korrotik pikutara' hitzaldi
dantzatua eskainiko dute Oier
Araolaza eta Gari Otamendi
dantzariak.

EuskarAbentura APP-a

Aurtengo ekitaldiak dakar-
tzen berrikuntza nabarmenen
arte, smartphonetan des-
kargatzeko aplikazioa dago. Ar-
duradunek diotenez, espedi-
zioa gertutik jarraitu nahi dute-
nentzat tresna baliagarria izan-
go da 'EuskarAbentura' aplika-
zioa. Eibarko Codesyntax en-
presa hornitzaileak garatu du,
eta Android nahiz iOS siste-
metarako erabilgarri dago jada.
Batetik, espedizioa uanean-
uean eta baten gainean
proiektatuta geolokalizatuko



du. Bestetik, etapa bakoitzaren
zehetasun teknikoak (kilo-
metro kopurua, gainbehera,
profila, zeharkatzen dituen he-
rriak... etab.) jasoko ditu. Jzio-
quitarrek espedizioak iraun bi-
tarte egin nahiz grabatutako arg-
azki eta bideoak ere erakutsi-
ko ditu, arian-arian eta geolo-
kalizatuta. Gainera, parte-har-
tzaile guztiei buruzko aurkez-
pen labur bana eta zenbait bi-
txikeria biltzen dituzten profil-
fitxak ere izango dira 'Euska-
rAbentura' aplikazio horretan
ikusgai.

EuskarAbentura 2019 espedizioa (etapak)

Uztailak 1:	Hiriburuak >> MAULE.	
Uztailak 2:	Maule >> PAGOLA.	14 km oinez.
Uztailak 3:	Pagola >> GAMARTE.	19 km oinez.
Uztailak 4:	Gamarte >> DONIBANE GARAZI.	13 km oinez.
Uztailak 5:	Donibane Garazi >> AURITZ.	
Uztailak 6:	Auritz >> ZUBIRI.	19 km oinez.
Uztailak 7:	Zubiri >> IRUÑA.	23 km oinez.
Uztailak 8:	Iruña >> GARES.	24 km oinez.
Uztailak 9:	Gares >> LIZARRA.	23 km oinez.
Uztailak 10:	LOS ARCOS >> BIANA.	20 km oinez.
Uztailak 11:	Biana >> GESALTZA.	
Uztailak 12:	Gesaltza >> ARGANTZUN.	18 km oinez.
Uztailak 13:	Argantzun >> GASTEIZ.	17 km oinez.
Uztailak 14:	Gasteiz >> ARAIA.	3 km oinez.
Uztailak 15:	Araia >> ZERAIN.	19 km oinez.
Uztailak 16:	Zerain >> TOLOSA.	10 km oinez.
Uztailak 17:	<< Tolosa >>	
Uztailak 18:	Tolosa >> HERNANI.	22 km oinez.
Uztailak 19:	Hernani >> IRUN.	25 km oinez.
Uztailak 20:	Irun >> DONIBANE LOHITZUNE.	17 km oinez.
Uztailak 21:	Donibane Lohitzune >> BAIONA.	17 km oinez.
Uztailak 22:	Baiona >> LEZO.	
Uztailak 23:	Lezo >> DONOSTIA.	12 km oinez.
Uztailak 24:	Donostia >> ZARAUTZ.	22 km oinez.
Uztailak 25:	Zarauz >> DEBA.	22 km oinez.
Uztailak 26:	<< Deba >>	
Uztailak 27:	Deba >> MARKINA.	22 km oinez.
Uztailak 28:	Markina >> GERNIKA.	28 km oinez.
Uztailak 29:	Gernika >> BAKIO.	15 km oinez.
Uztailak 30:	Bakio >> BILBO.	
Uztailak 31:	Bilbo >> GETXO.	

Errenteriako Fomento Cultural garaile partida azkarreko Eibarko Hiria 35. xake txapelketan

Guztira 18 talde eta 75 jokalaritik gora batu ziren Untzagan aurreko zapatu arratsaldean jokaturako Jose Mari Kruzetaren omenezko Eibarko Hiria 35. Xake Txapelketan. Eibarko Klub Deportiboaren xake batzordeak antolatuta, bost ordu inguruko saioan, talde guztiek beste guztien aurka jokatu zuten xake modalitate ikusgarriean, 5 minutuko partidetan. Errenteriako

Fomento Cultural taldeak lortu zuen garaipena, 53,5 puntu pilotuta eta Donostiako Gros Xake bigarren sailkatuari puntu erdiko aldea aterata; Portugalete izan zen hirugarren, 51rekin. Eibarko Klub Deportiboak bi talderekin hartu zuen parte: lehenengoa Jon Arana, Jose Antonio Garrido, Emilio Jose Freire, Adrian Martinikorena eta Oier Garciak osatu zuten; eta bigarrena Xabier



Beorlegi, Iker Narbaiza, Aitor Beorlegi, Lander Aja eta Igor Zenigaonaindiak. Ez zen izan euren egunik onena eta azken bi postuetan amaitu zuten

sailkapenean. Lau mahaitan banatutako txapelketan, Fomento Culturaleko Mikel Alvaradok partida guztiak irabazi zituen.



Kalamuako 10 kirolarik jiu-jitsuko gerriko beltza eskuratu zuten

Kalamua judo klubak denboraldia amaitu zuen klubaren instalazioetan jokaturako ikasturte amaierako lehiaketarekin eta, horrez gain, Legazpin jokaturako torneoarekin. Bestalde, Deustuko Guruma gimnasioan jiu-jitsuko gerriko beltza lortzeko azterketan, 1. dan izateko zortzi ordezkariak eta 3. dan izateko biek proba gainditu eta maila eurenganatu zuten. Euretako hiru Guadalajara joango dira monitore titulua ateratzera eta beste bi Tokyon izango dira judoko udako ikastaroetan parte hartzera: "Katak, teknika eta Sochu Geiko landuko ditugu han".

Eibar Energia Hiriko Mikel Mujika Gipuzkoako txapeldun

Legazpiko txirrindularia bederatzigarren helmugaratu zen Ataungo San Martin Probaren LV. edizioan eta 23 urtetik beharako mailako Gipuzkoako txapela jantzi zuen. Horrez gain, Eibar Energia Hiriko txirrindulariak Euskaldun Torneoaren lidergora egin du jauzi, Laboral Kutxako Mikel Paredesi aurrea hartuta. Txapelak jokoan ipinitako lasterketa gogorra izan zen oso eta, izena eman zuten 168 parte-hartzailetik, bakarrik 66 helmugaratu ziren 125 kilometroak bete ondoren. Mikel Mujika Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza taldearen ordezkari nagusia da sailkapen guztietan.



Jubenil mailako nesken taldea.

Waterpolo harrobiko taldeek ere amaitu dute denboraldia

Urbat-Urkotronik-eko alebin mistoak Gipuzkoako Kopa bereganatu zuten Irunen, Bidasoari 5-9 irabazi eta gero. Kadeteen mailako taldeak 13-18 galdu zuen Leioaren aurka eta laugarren postuan amaitu zuen Euskal Herriko txapelketa. Eta jubenetan, nesken taldeak 4-6 irabazi zion Bidasoari, liga bigarren amaitzeko; eta mutilen taldeak galdu egin zuen W Navarrarekin finaleko bigarren partiduan eta, azkenean, eurek ere bigarren postuan amaitu dute liga.

Pirinioetako ia 3.000 metroko hiru gain egiteko aukera

Uztailaren 25etik 28ra 2000koak Pirinioan programaren Araneko Itzuliaren lehen zatia egiteko irteera antolatu du Klub Deportiboko mendi batzordeak. 2.679 metroko Tuc de Marimanha, 2.881eko Pic de Maubérme eta 2.714 metroko Tuc dera Sèrra Nauta izango dira egingo dituzten gainak eta irteera horretarako plazak mugatuta daude, "alojamentua erreserbatu behar delako". Izenematea martitzenean zabaldu zuten eta astero martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) aukera egongo da izena emateko; baita 943-201904 telefono zenbakian edo mendia@deporeibar.com helbidean. Lau egun horietako lehen etapa Pla de Beretik Montgarrira joango da, ia 17 kilometro eginez eta 1.055 metroko metatutako desnibelarekin; bigarrenean Montgarritik Refugi D'Etang D'Araing-era joango dira, 24 kilometro osatu eta 2.110 metroko desnibela gaindituta; hirugarrenak aipatutako Refugitik Honeriarera eramango dizkie, 14 kilometro eta erdi osatuz, 910 metroko desnibelarekin; eta, azkenik, laugarren etapak Honeriatik Les, Garona gaineko zubiara egingo dute, zortzi kilometro eta erdian 255 desnibela gaindituz. Azken etapa horrek bi aukera eskainiko dizkie mendizaleei, "biak ere irudi ederez lagunduta".



Pirinioak eta Artzaintza Naturbidea

Aurreko asteburuan, bestalde, 25 laguneko menditaldea Pirinioetara joan zen eta Tebarray (2.886 m.) eta Bacias (2.760) ton-torrek igo zituen. Egundietako ibilaldiak nahiko luzeak ziren eta desnibel handiak. Batez ere, lehenengoa (1.900 metro); bigarren egunean 1.000 metro gainditu zuten. "Paisaia paregabea zen, izugarritzko

ibonekin; aurrez-aurre izan genituen Pirinioetako mendi ikusgarrienetako batzuk". Beroa pasatu zuten eta kranpoiak erabili behar izan zituzten. Hilaren 13rako dute hurrengo hitzordua Deporreko mendi batzordekoek, Artzaintza Naturbidearen laugarren etapa egiteko: Oteotik Agurainera joango dira, Arrigoristatik (1.153 m.) pasatuta, 24 kilometroko ibilbidean.

Delteco Eibar Triatloiak ordezkariak zabala aurkeztu zuen Lekeitioko proban

Lekeition jokatu zen esprint modalitateko XXVII. Euskadiko eta Arabako txapelketan, Eibarko triatloi taldeak 15 ordezkari izan zituen igeriketan 750 metro betetzeko, bizikleta gainean 21 kilometro egiteko eta azken bostak antxixiketan burutzeko. Emakumezkoetan Cristina Ruiz izan zen Delte-

coko onena, 56. postuan (15. v1f mailan); Esther Pagei minutu batera helmugaratu zen, 61. postuan (18. maila berean). Gizonetzkoetan Igor Atxa izan zen Eibarko lehena, 86. postuan (17. v1m mailan) eta Joseba Agote 130.ean sailkatu zen (bigarren bere mailan).



Alberto Ferreiro erraz nagusitu zen XVI. Eibar Hiria squash torneoan

Eibartarrak 3-0 irabazi zion finalean Fran Serrano Sestaoko Benedikta Squash taldeko ordezkariari eta, finalerdietan, emaitza berberarekin nagusitu zitzaion Sergio Salgado Klub Deportiboko taldekideari. Finalerdi horiek Sestaoko eta Eibarko squashlarien artekoak izan ziren. Guztira 39 kirolarik hartu zuten parte San Juan jaietako egitarauaren barruan jokatzeko den torneoaren 16. edizioan, euren artean hiru emakumezko. Azken hauen artean Iratxe Gimenez eibartarrak debutatu zuen eta, Gasteizko FreeSquash-eko eta Sestaoko Benediktako ordezkariarekin galdu bazuen ere, azkenari set bat irabazteko gai izan zen.

Joseba Tamayo izan zen, bestalde, Deltecoko ordezkari bakarra distantzia luzearen Errioxako triatloian. 1'9 kilometro igerian, 90 kilometro bizikleta gainean eta azkeneko 21ak antxixiketan egin ondoren, Eibarko gaztea 33. postu bikainen artean amaitu zuen.

Aitor Montero denboraldi ezin bikainagoa dabil osatzen

Nafarroako Los Arcoseko zirkuitoan jokaturako abiadurako txapelketa autonomikoaren hirugarren lasterketan, Aitor Montero eibartarrak garaipena lortu zuen berriro eta, modu horretan, jokaturako hiru probetatik bitan irabazi eta bestean hirugarren izanda, sailkapeneko lidergoa sendotu du. SBK 1000 mailako piloto asko izan zuten lehian eta, hori gutxi balitz, "pistako 47 graduek ere errazta-

sun gutxi" eskaini zioten. Suzuki 1000R montura berria "lan bikaina egin du I+DENT nire ekipoak, lasterketako pole-a lortzeraino". Irteerako lehen postu horri bikain eutsi zion amañatarrek probaren amaierara iritsi arte, pole-aren denbora ia segun batean hobetzeraino. Monterok "Ramon Izquierdo managerraren eta Bizkai Motor Racing-aren ekarpen guztiak" eskertu ditu.



Odei Jainagak zilarrezko domina lortu du Espainiako txapelketan

Odei Jainaga bueltan da. Xabalina jaurtitzaila eibartarrak ukondoko arazoak albo batera laga eta lehiara itzuli da. Aurten ia txapelketarik jokatu ez badu ere, bigarren postua lortu zuen asteburuan Tarragonan jokatu zen 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan. Atletia eibartarrak 74,65 metroko marka lortu zuen, baina Manu Quijera nafarrak 78,01 metrora bidali zuen

xabalina eta zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zen. Quijerak 81,31 metroko marka lortu zuen maiatzean, Jainagaren (80,64 metro) esku zegoen Espainiako marka hautsiz. Txapelketa berean Julen Teranek 8. postuan amaitu zuen 3.000 metro oztopoetako proban eta Markel Gutierrez hamargarren izan zen 10 kilometroko martxa proban.

Bestalde, Castellon jokaturako 18 urteko beherakoan Espainiako txapelketan, Eibarko Klub Deportiboko beste lau atleta izan ziren parte hartzen. Xabalinarekin, Carlitou Mendy bosgarren sailkatu zen, Garoa Magunazelaia zortzigarren geratu zen eta Mikel Martinezek 11. postuan sailkatu zen. Eneko Larreak altuerako proban hartu zuen parte, hamargarren postuan amaitzeko.



Eibar Eskubaloiak urteko batzarra egingo du 10ean

Portaleko Batzar Aretoan, arratsaldeko 18:30ean hasita, egingo da batzar hori. Aurreko akta onartu ondoren, azken denboraldiko balantzea egingo dute eta, jarraian, hurrengorako aurrekontua aurkeztuko. Bestalde, Eibar Eskubaloiak 2018-19 denboraldia amaitutzat eman zuen harrobiko talde guztiekin ohikoa den ikasturte amaierako afariarekin. Delegatu, entrenatzaile, jokalarik, babesle... denei eskerrak eman ez agurtu dute ikasturtea gure herriko eskubaloiklubei zuzendaritzakoek, "hurrengo denboraldiaren zain, ilusioz beterik".

Eibar Igerixaneko igerilariak markak egiten jarraitzen dute, nekaezin

Aurreko asteburuan Tolosan jokaturako infantil eta alebin mailako Udako Euskal Herriko txapelketan Eibar Igerixaneko 11 igerilari hartu zuten parte: lau infantiletan eta zazpi alebinetan. Miren Galdosek hilaren amaieran jokaturako diren infantil mailako Espainiako txapelketarako gutxieneko marka lortu zuen lau probetan eta gauza bera egin zuen Iker Calvok alebinetan beste bi probetan. Astebete lehenago, aipaturako infantil eta alebin maila horietan jokaturako Udako Gipuzkoako txapelketetan Eibar Igerixaneko 13 ordezkari izan ziren guztira. Lasarten jokaturako infantil mailako XI. txapelketan bostekoa aurkeztu zuten eibartarrek eta Ekaitz Lagok urrezkoa lortu zuen 100 eta 200eko estilo librean eta metal beraren jabe egin ziren Iker Uribesaldu 200 bularrean, Miriam Cabrera 100 estiloetan eta Malen Albistegi 100 bizkarrean;



an; horiez gain, zilarrezko bat eta brontzezko hiru ere irabazi zituzten. Ordizian jokaturako alebin mailakoan Eibar Igerixaneko zortzi igerilari izan ziren parte hartzen eta urrezko bost dominekin itzuli ziren: lau Iker Calvok eskuratu zituen (100 eta 200 librean eta 200 eta 400 estiloetan) eta bestea Malen Beobidek 100 bularrean; aurekoez gain, zilarrezko bat eta brontzezko bost dominekin bueltatu ziren Eibarrera.

JUAN LUIS MARDARAS (Eibar KE-ko presidente ohia):

Eibar KE-k Elxen amaitu zuen 2001/02 denboraldia eta Martinez Valero zelaian esan zion agur Juan Luis Mardarasek klubaren presidentetzari. Inor ez da egon bera beste denbora kargu horretan (14 urte) eta bere gidaritzapean taldea foball profesionalen ezarri zen. Presidente kargua utzi bazuen ere, Gipuzkoako Foball Federakuntzan aholkulari moduan jarraitu du eta joan den asteburuan Kirol Merituaren saria eman zioten.

- Orain dela 17 urte laga zenuen Eibar KE-ko presidentetza. Zer egin duzu ordutik?

Lan egin jubilatuta arte. Nere sasoiaren presidentetza eta lana uztartu behar izan nituen. 2009an jubilatuta nintzen eta etxean lasai egoteko momentua iritsi zen.

- Oraindik sariak jasotzen jarraitzen duzu. Polita da?

Kontua da 31 urte egin ditudala Gipuzkoako Foball Federazioan eta datorren urtean lagako dudala. Horregatik eman didate saria.

- Faltan bota izan duzu foballaren eguneroko jarduna?

Eibarko presidente moduan lan asko egin behar izaten nuen eta ordu asko eskatzen zidan lana zenez, faltan bota nuen libre geratu nintzenean. Alde handia igarri nuen.

- Hala ere, taldea hurbiletik jarraitu izan duzu?

Bai, lagunek jarraitu zutelako talde barruan, baina beti kanpotik jarraitu dut klubaren jarduna, barruko kontuetan sartu barik.

- Urteetan jaso zenuen esperientzia baliagarria zen errentzat?

Bai. Egoeraren bat gertatzen bazen, antzeko kasuan guk zer egin genuen galdetzen ziguten. Esperientziak horretarako balio du.

- Gauzak asko aldatu dira zuek bizi izan zenuten sasoiarekin alderatuz gero.

Askok gainera! Gu periodo

kuaternarioan bizi ginen gaur egungoarekin alderatuz.

- Gaur egungo Eibar KE barrutik bizitzea gustatuko litzatezke?

Niri sasoi hura bizitzea tokatu zitzaidan eta pozik nago. Ondo egon zen.

- Eibarrek seigarren denboraldia jokatu du 1. mailan datorren urtean eta ia-ia miraria dela diote askok, baina zure sasoiaren 18 urte egin zituen 2. mailan. Gauza biak alderatu daitezke?

Ezin dira gauza biak konparatu, egoera ezberdinak direlako. Gure sasoiaren Eibarrek beti kategoriako aurrekontu baxuena zuen, baina gaur egun badaude 1. mailan aurrekontu gutxiago duen taldeak. Beraz, alde horretan taldea hobeto dago. Orain publikitatearen eta babesleen dirua zerutik erortzen da, lehen ate joka ibili behar izaten genuen.

- Gauzak asko aldatu badira ere, zuen sasoiaren Eibarren arrastoak igartzen dituzu taldean?

Zuzendaritzan eta teknikarrien artean gure sasoiaren izpirituaren barneratuta dagoela usate dut. Klubak badaki nondik datorren. Taldeak hankak lurrean izan behar ditu eta zentzudun jokatu behar du beti. Erreza da esatea, baina egitea zailagoa da. Nire iritziz zuzendaritzak gauzak oso ondo egin ditu eta harreman sendoak di-

“Kuaternarioan bizi ginen gaur egungoarekin alderatuz”



tu Udalarekin, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Aurten Ipuruako obrak amaituko dira eta ikusiko dugu Mallabiko kirol-hiria nola doan. Ea harrobitik jokalariei bartarrak irteten diren.

- Taldean jokalariei bartarrak egotea faltan botatzen duzu?

Bai, gutxienez euskaldun gehiago egotea. Eibarren filosofiarik eusteko garrantzitsua da kluba ondo ezagutzen duen jokalariren bat egotea. Beste taldekideei gure sustaiak zeintzuk diren hobeto azaltzeko.

- Eibarrek nahiko denboraldi lasaia bizi izan du aurten. Lasaitasunaren bidetik jarraituko duela usate duzu?

Bai. Aurten merezi baino puntu gutxiago lortu ditu Eibarrek. Oso ondo jokatu duela usate dut.

- Batzuk Europara begira jarri ziren.


Ez, Europa ez da guretzat. Lan handia eskatzen du eta guretzat egokia ez dela erakusten diguten adibideak ditugu. Denboraldia goiz hasi behar duzu, klub barruan ere baliabide gehiago behar da eta azkenean frakak lurrean dituzula amaitzen duzu. Higadura handia ekarriko luke.

- Gaur egun taldea 1. mailan egonkorru dela esango zenuke?

Bai, baina ezin gara deskuidatu. Gauzak zuzen egin behar dira.

- Eta taldea 2. mailara jaisten bada?

Presidenteak dio muskulua dugula. Beraz, jaisten bagara ere diru asko daukagu eta berriz gogo gaitzkeela pentsa daitezke.



JOSEBA BARRUTIA "ARNO". Xabi Bastida, Su Ta Gar taldeko gitarra, S.D. Eibar-ek Untzaga Plazan eskainitako kontzertuan (2019-V-19).



Aitor Zubizarreta

Mikel Pizarro eibartarrak eta Andoni Conde ermuarrak osatzen dute *We are apes, hello!* taldea. Bikoteak Kaliforniako doinuak dakartza bere bigarren diskoan, *'Archives of my memory'*, Ez Dok tabernako lagunek sortu berri duten Junk! zigiluarekin atera duten lanean. Hilaren 24an Ermuko Martxoak 8 plazan joko dute eta euren lana plazaratzeko gogo biziz daude. Edonork eurekin kontaktuan jarri nahi badu, euren sare sozialetara jo (Facebook eta Instagram), weareapeshello@gmail.com helbidera idatzi, edo *Junk!* sare sozialetara (Junk Records) edo Ez Dok tabernara jo dezake.

WE ARE APES, HELLO!:

“Hizkuntzak musikalak dira, guztiz”

- Zer moduzkoak dira diskoa atera berriko sentsazioak?

Maiatzaren 10ean kaleratu genuen eta ziurgabetasunarekin bizi ditugu momentu hauek. Pozik gaude diskoak izan duen harerarekin, jendeari gustatu egin zaiolako, baina orain parentesi batean gaude, linbo ederrean. Izan ere, jendeari diskoa gustatzen zaio, baina ez zaizkigu kontzertuak irteten. Zaila egiten zaigu zuzenean jotzeko aukera lortzea.

- Pozik zaudete diskoarekin?

Oso pozik! Primerako soinua du eta lortu nahi genuena lortu dugu. Gainera, kritika onak jaso ditu. Aintzat hartzen dugun jendeari gustatu egin zaio eta hori garrantzitsua da guretzat.

- Nolako soinua du diskoak?

90. hamarkada erdiko edo amaierako disko bat bezalakoa da, gaur egungo soinuarekin (sintetizadoreen moldaketekin eta abar). Pop musika da, rock oinarriarekin. Letrei garrantzia handia ematen diegu. Oso letra pertsonalak dira, %100. Horren erakusle da diskoaren izenburua (*'Archives of my memory'*, nire memoriaren artxiboak). Letrez gain musika oso garrantzitsua da guretzat eta diskoak oso abesti indartsuak ditu. Gero, jendeak pentsa dezake bi lagun artean zaila

izango daitekela diskoa zuzenean defendatzea, baina ondo moldatzen garela uste dut, gure musika tresnez gain ordenagailua eta bestelako gauzak eramaten ditugulako.

- Orain dela urte bi maketa grabatu zenuen. Aldaketa egon da disko hartatik hona?

Konposizio aldetik ez, antzeko dinamika jarraitu dugulako lan egiteko orduan; baina soinua aldetik bai, azken lan hau profesionala delako.

- Nolako da zuen lan prozesuaren dinamika?

Letretatik hasten saiatzen gara abestiak sortzeko, gero musikak letrei esanahi bat emateko, baina batzuetan gitarrekin riff on bat irteten zaizu eta gartu egiten duzu gero letra sartzeko. Lehengo diskoan musikatik hasi ginen gehiago, hortik zer irtengo zen ikusteko, baina bigarrenean letrak egon dira sormenaren hasieran. Batek (Mikelek) letra gehienak egin ditu eta besteak (Andonik) doinua jarri die.

- Elkar ondo ulertzen zareten seinale.

Horregatik sortu dugu taldea. Orihen taldean ezagutu genuen elkar eta taldeak atsedena hartzen zuzenean gustoko genuen musika jotzen genuen. Bioi gusta-

tzen zaigun estiloa da eta errazen irteten zaiguna.

- Abestiak sortzen dituzue zuzenean nola joko dituzuen pentsatzen duzue?

Ez, abestian pentsatzen dugu, beste berririk. Gero moldaketak egiten ditugu zuzenekoetarako.

- Ingelesez abesten duzue. Zergatik?

Ingeleseko musika entzuten dugulako gehienbat. Gainera, gure musika estiloak Kalifornian du jatorria eta ingelesa ondo egokitzen zaio. Euskerazko abestiak egiten saiatu beharko genuke, musika estilo honetan ondo entzun daitekela. Edozein hizkuntzak ez du balio musika estilo guztientzat, lagundu egin behar dute. Hizkuntzak musikalak dira, guztiz.

- Junk! zigilu berriarekin sortu duzue diskoa. Zer moduz?

Ez da gauza bera autoekoiztutako disko edo zigilu batekin egindako disko ataritzea. Zigilu bila genbiltzan eta Ez Dok tabernako Joseri komentatu genion. Eurek zigilu bat sortzeko asmoa zuten eta guk disko kaleratu nahi genuen, eta horrela sortu dira *Junk!* eta gure diskoak. Eurentzat gauza berria da eta pozik gaude elkarlana-rekin. Guretzat familiakoak bezalakoa da, ikusiko dugun noraino heltzen garen.

Zabalik dago Jabetze Eskolako udazkeneko ikastaroetarako izen-ematea

Udazkeneko Jabetze Eskolako ikastaroetan izen-emateko epea astelehenean zabaldu zuten eta interesa dutenek irailaren 20ra arte izango dute izena emateko aukera, Andretxean edo Pegoran. Prestatu duten eskaintzaren barruan sei ikastaro daude: "Amets egitea, sinistea eta sortzea" izenburukoa urriaren 1ean hasi eta, abenduaren 3ra bitartean, martitzenero izango da (20 ordu guztira), 18:00etatik 20:00etara, Portaleko ikastaro gelan. Monica Nuñez Avilak emango ditu klaseak, gazteleraz; "Batera ibili gaitzen: espartin tailerra" ikastaroa urriaren 2tik 30era bitartean egingo da (15 ordu), eguaztenetan, 17:00etatik 20:00etara, Andretxean. Formatzailea Marian Idiaquez izango da eta euskeraz emango ditu klaseak; "Sabel dantza" ikastaroa urriaren 2tik abenduaren 11ra bitartean izango da (20 ordu), eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara Portaleko ikastaro gelan. Jaio-



ne Albeniz Pagola izango da formatzailea eta kurtsoa euskeraz emango du; "Gure bizi energia hobetzen: Chi Kung" ikastaroa barixakuetan izango da, urriaren 4tik azaroaren 8ra (10 ordu), 18:00etatik 20:00etara, Portaleko ikastaro gelan. Hau ere euskeraz izango da eta formatzailea Idoia Eizmendi Aldasoro izango da; "Autodefentsa feminista" azaroaren 9an eta 10ean (zapatuan 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era eta domekan 10:00etatik 13:00era) emango du Isabel Bernalek,


gazteleraz. Matrikulak 15 euro balio du Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat eta 20 euro, berriz, beste guztientzat; eta "Ofimatika guztientzat" izenburukoan Word eta Excel programak erabiltzen irakatsiko du Yanire Sagredok. Klaseak (gazteleraz) martitzenetan izango dira, urriaren 1ean hasita abenduaren 3ra arte (20 ordu), 17:00etatik 19:00etara, Untzagako jubilatuetan. Ikastaro honen prezioa 8 eurokoa da Eibarren erroldatutakoentzat eta 10 eurokoa, berriz, beste guztientzat.



"Gure bizi energia hobetzen: Chi Kung" ikastaroa urriaren 4an hasiko da.



Espartin tailerrean horrelakoak egiten irakatsiko dute.



JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAren
8. URTEURRENA (2011-VII-4)

*"Zortzi urte pasa badira ere,
gure bihotzetan jarraitzen duzu"*

ZURE FAMILIA





San Pedroren babesean, ederto ospatu zuten Eibarko I. Txistu Eguna

Aurreko zapatuan, Sanpedroetako jai egitarauarekin bat eginda ospatu zen Eibarko I. Txistu Eguna, Usartza Txistulari Taldearen ekimenez. Eibarkoekin batera, Deba, Zornotza, Ondarru eta Elgoibartik etorritako txistulariek hartu zuten parte ekitaldian: arratsaldeko lehen orduan taldeka banatu eta auzoetan ibili ziren, kalejiran. Eta, ondoren, denek bat egin zuten Untzagan, metalezko instrumentuen laguntzarekin herriko erdialdeko kaleak iluntzera arte musikarekin girotzeko. Gainera, jaiaren aitzakiarekin lehiaketa antolatu dute: parte hartzeko Usartza Txistulari Taldeko Facebook orrian Eibarko I. Txistu Eguneako argazkiak igo, besterik ez da egin behar (gaur da azken eguna). Parte hartzen duten guztien artean zozketa egingo dute domekan, 12:30ean Untzagan emango duten kontzertuan, eta irabazleak bi lagunentzat afaria irabaziko du Kontent tabernan.




Danborradako erropa bilketa

Atzean laga ditugu San Juan jaiak eta Danborradako batzordeko kideek parte hartu dutenen behin-betiko erropa bilketa egin dute aste honetan. Asteburu honetan egingo den Amañako Danborradako enak, berriz, datorren eguaztenean (uztailaren 10ean) jasoko dituztela jakinarazi dute, 17:00etatik 19:00etara, Bittor Sarasketa kaleko entsegu lokaletan.

Andrea Garcieren musika zuzenean

Gaur 19:00etan hasiko den Andrea Garcieren musika emanaldiak zabalduko du El Corte Ingleseko terraza uztaileko barixakuetan girotzeko asmoz antolatu duten Musika Zuzenean izeneko egitaraua. Gaurko emanaldian ETB1eko BaGo!az'eko azken edizioan finaleraino ailegatu zen gazte eibartarraren kantuekin gozatzeko aukera izango da. Uztailaren 12an, berriz, Maite Alberdiren txanda izango da eta uztailaren 26an Sofia eta Ander bikoteak jardungo du. Saio guztiak 19:00etan hasiko dira. Horrez gain, uztailaren 11, 18 eta 19an umeendako puzgarriak ipiniko dituzte, 17:30etik 19:30era. Jarduera guztietarako sarrera dohainik izango da eta, euria egingo balu, bertan behera lagako dute, beste egun batean egiteko).



CORO ZUBICARAY AGUIRREGABIRIA 5. urteurrena (2014-VI-23)

Haren alarguna: Calixto Ulacia Beristain

“Beti egongo zara gure bihotzetan”

SENARRA ETA ALABAK



Eibarko Itun Federalari eskainitako interesgunea prestatu dute Liburutegian

1869ko ekainaren 23an Euskal Herriko federaziozale errepublikarrak Eibarren bildu eta Itun Federala sinatu zela eta, Ego Ibarra batzordeak 150. urteurrena gogora ekartzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu eta, ospakizun horiekin bat eginik, Juan San Martin Udal Liburutegiak interesgunea prestatu du: *"Gure ondare bibliografikoko 1860-1870 hamarkadako hainbat liburu jarri ditugu ikusgai, itunaren kopia batekin batera. Itun hori 'Iurac bat' aldizkarian jasota dago, hain zuzen ere aldizkariaren 18. urtean, 146 zenbakian, 1869ko ekainaren 27ko alean"*. Azaldutakoaren



arabera, interesgunean eskuragarri ipini ditzutenen artean titulu bakarra da 1869. urtekoa, *"baina hamarkada horretako doze-*



na bat liburu jarri ditugu, batzuk Armeria Eskolak orain dela gutxi udal liburutegiari egindako dohaintzakoak".

Jose Miguel Laskurain omendu dute Zumarragako Bandakoek



Zumarragako Musika Bandakoek 150. urteurrena ospatzen dihardute eta, aurreko asteburuan, herriko jaietan, pregoia irakurri eta jarraian, Jose Miguel Laskurain eibartarrak bandarentzat bereziki sortu duen ereserkia estreinatu zuten. Bandako kideek euren esker ona azaldu nahi izan zioten pieza horren egileari: *"Bereziki gure ereserki berria sortu duen bandakide Jose Miguel Lasku-*

rain omendu nahiko genuke. Hasieratik gure proposamena gogoz eutsi duelako eta talde honen historiarentzat ereserki honek beste kapitulo bat izaten lagunduko duelako". Euren esker ona adierazteko, urtero Zumardi elkartearen egin ohi duten afarian oroigarria eman zioten eta, Laskurainek bezala, Zumardi elkarteak eta Zumarragako Udalak ere oroigarri bana jaso zuten, beraien laguntzarengatik.



Domekara arte erakutsiko dituzte bazkideen lanak Ipuruako jubilatuen etxean

Ipuruako jubilatuen etxean bertako bazkideek egindako lanen erakusketa zabaldu zuten Sanjuanak baino lehen. Ikusgai ipini ditzutenen artean era guztietako arte-lanak daude: egurrekin egindakoak, margoak, puntuz zein josita egindako erropak... Domekara arte egongo da ikustera joateko aukera, jubilatuen etxea zabalik dagoenean.



Kokeinek gaur joko du ELGOIBARREN

Gaur Elgoibarko Usuan parkean, 20:00etan hasita, "Uztaileko barixakua, Usuan" egitasmoko lehen emanaldia eskainiko dute Eibarko Kokein musika taldekoek. Gure herriko taldea osatzen duten bost kideetatik hiru bakarrik igoko dira taula gainera, normalean distortsioa eta soinu gogorra ezaugarri dituzten kantuen bertsio akustikoak defendatzera. Kantu batzuk moldatuak izango dira, beste batzuk gordinxeagoak, eta bertsioen bat edo beste ere joko dute. Formatu txikiko kontzertuak izango dira uztaileko barixakuetan egitasmo berri horren barruan joko diren laurak: hilaren 12an Joseba Irazoki izango da, 19an Moby Dick eta, azkenik, 26an Los Sara Fontan.



Kontzertu solidarioa bihar DEBAN

Durangoko Orfeoia, Debako Aitzuri Abesbatzak eta Kamarako Orkestrak, Fernando Urain Oñederra zuzendari dutela, W.A. Mozarten Requiem-a eskainiko dute bihar, zapatua, 20:00etatik aurrera Debako elizan. Sarrerak salgai daude, 10 eurotan, bertako Turismo Bulegoan. Kontzertua Sierra Leonan Ebolak eragindako umezurtzen alde egingo da, neska-mutil horien heziketarako gastuei aurre egiteko.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Salvador Delgado Salas. 79 urte. 2019-VI-22.
- Dolores Sanchez Garcia. 82 urte. 2019-VI-22.
- Agustin Zubia Bastida. 84 urte. 2019-VI-23.
- Jesus Aranegi Larrañaga. 91 urte. 2019-VI-25.
- Jose Luis Idoeta Alberdi. 84 urte. 2019-VI-25.
- Javier Vidal Bugallo. 72 urte. 2019-VI-25.
- Luis Ordorika Omar. 88 urte. 2019-VI-27.
- Julio Gimeno Garate. 73 urte. 2019-VI-29.
- Paco Lopez Gisasola. 75 urte. 2019-VI-29.
- Jorge Astigarraga Zabala. 61 urte. 2019-VII-1.
- Eulalia Bastida Nicolas. 84 urte. 2019-VII-2.
- Jose Luis De los Toyos Nazabal. 58 urte. 2019-VII-2.

jaiotakoak

- Alex Agirreazaldegui Blanco. 2019-VI-23.
- Unax Maiztegi Mata. 2019-VI-25.
- Riham Kannane. 2019-VI-28.
- Hegoa Lizarralde Ruiz. 2019-VI-29.
- Maia Rivas Markina. 2019-VI-29.
- Lea Rivas Markina. 2019-VI-29.

farmaziak

- Barixakua 5
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Zapatua 6
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Domeka 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
- Astelehena 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 9
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguaztena 10
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 11
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

3	6	4	1	9	2	7	5	8
8	1	2	5	6	7	3	9	4
7	5	9	4	8	3	6	1	2
4	2	5	6	7	1	9	8	3
6	9	8	3	2	4	1	7	5
1	7	3	8	5	9	2	4	6
2	3	7	9	4	8	5	6	1
5	8	1	7	3	6	4	2	9
9	4	6	2	1	5	8	3	7

	9			4				
	3		9			6		
	4		6				3	5
	2					5		
6		8	5		9	7		2
		5					6	
2	8				7		9	
		9			1		7	
			8				5	

Barixakua 5

LIBURU AZOKA

17:30/20:30. Eibar-Sahara Elkartearen liburu azoka. Untzagan.

AMAÑAKO JAIK

18:30. Kuadrilen jaitsiera, dorreetatik Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

19:00. Jaien hasierako txupinazoa, Oskar Artetxe Eibar FT-ko jokalaria ohiaien eskutik.

19:30. Kalejira, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

20:00. Umeendako joko-jaialdia, Gorritirekin.

21:30. Herri-afaria. Nahi duten guztiak eman dezakete izena Azkena tabernan.

23:15. Kontzertua Skakeitan, Esne Beltza eta Josetxu Piperrak & The Ribber Rock Band taldeekin.

MUSIKA ZUZENEAN

19:00. Andrea Garciaren musika emanaldia. El Corte Ingleseko terrazan.



Zapatua 6

AMAÑAKO JAIK

10:00/15:00. Artisau Azoka. Amañako plazan.

14:30. Herri-bazkaria: paella. Plazan bazkaltzen ez duenari ez zaio edaririk zerbitzatuko.

16:30. Umeendako parkea, gaztelu puzgarriekin.

19:00. Herri-sardinada. Amañako plazan.

19:30. Kallejonada, "México Lindo Sí Señor" mariatxiarekin.

20:00. Kontzertua, "México Lindo Sí Señor" mariatxiarekin.

22:15. Helduen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

00:15. Su artifizialak, Pirotecnia Zaragozanarekin.

LIBURU AZOKA

10:30/20:30. Eibar-Sahara Elkartearen liburu azoka. Untzagan.



Domeka 7

LIBURU AZOKA

10:30/14:00. Eibar-Sahara Elkartearen liburu azoka. Untzagan.

AMAÑAKO JAIK

11:00. Meza, Sostoa abesbatzarekin, Amañako parrokian.

12:00. Salda eta txorizoa bildutako guztientzat.

12:30. Umeen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

14:00. Ogitartekoak danborradan jardundako ume guztientzat.

18:00. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan ikuskizuna.

19:00. Txorizo-ogitartekoak, Amaña plazan.

19:30. Txokolate-jana, ume guztientzat.

20:00. Berbena, Mugi Panderoarekin.

22:30. Jaien amaiera.

KONTZERTUA

12:30. Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzagan.



Martitzena 9

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguaztena 10

DANBORRADA

17:00/19:00. Amañako Danborradako erropa bilketa. Bittor Sarasketa kaleko entsegu lokaletan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 11

KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua **18:00**etan hasiko da). Untzaga jubilatutako etxean.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

SAN KRISTOBALGO JAIK

19:00. Futbolin txapelketa. Erromes tabernan.
22:00. Igel-toka txapelketa. Xania tabernan.

Erakusketak

Uztailaren 7ra arte:

– **BAZKIDEEK EGINDAKO LANAK** (Ipuruako Jubilatutako Etxea)

Uztailaren 19ra arte:

– **"EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942"** (Eibarko Armagintza Museoa)

Uztailaren 8tik 28ra:

– **"PRADOKO MUSEOA KALEETAN"** (Untzaga)


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JOKIN, gaur 12 urte betetzen dozulako. Oso ondo pasatu merezittako oporretan. Asko maite zaittugu guztiok.



Zorionak, TELMO! Domekan 5 urte potolo beteko dozuz-eta. Musu handi bat famelixaren eta, batez be, Lukenen partez.



Zorionak, AMAIA, hillaren 8xan 13 urte beteko dozulako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitzen partez.



Zorionak, ANETTE, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez. Illargiraiño eta buelta maite zaittugu.




Zorionak, MAIALEN, ekaiñaren 28xan 9 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, IZARO eta LUR, hillaren 2xan 10 urte bete zenduezen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Gure etxeko bi txipristiñueri, zorionak! Musu haundi bana.



Zorionak, LUKEN (astelehenian 4 urte beteko dozuz) eta tia SILBIA (uztaillaren 1ian) zeuen urtebetetzian. Musu haundi bana eta ondo-ondo ospatu!

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisu argitsua salgai T. Etxebarria kalean. 95 m². 2 komunekin. Zure gustura diseinatu eta antolatzeko moduan. Tel. 686-745112.

1.2. Errentan

- Etxebizitza alokatzen da Zumaian abuztutarako. 3 gela eta 2 komun. Tel. 661-457958.
- Pisu zoragarria alokagai uztailan eta irailan Donostian, Kursaal eta Zurriolako hondartzara ondoan. 2-3 logela, sukalde handia, jangela-egongela eta 2 komun. 3 igogailu, eskilara egokitua eta garajea etxe azpian. Aste baterako edo hilabete osorako alokatzeko aukera. Tel. 689-232882.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 602-463828.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Karabana finkoa salgai Mutrikun (Santa Elena kanpinean). Komuna, dutxa, abanize eta 2 oherekin (1'50 eta 0'90). 5.500 euro. Tel. 639-629346 eta 676-102578.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai San Juan kalean, Amaya-ko garajeetan. Tel. 679-843282.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai T. Etxebarria kalean. 25 m². Bulego, profesional, kontsulta, akademia etaberrako egokia. Tel. 616-175672.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-235371.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-398855.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-496455.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-587617. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da zaintza, garbiketa eta sukaldaritza lanak egiteko. Tel. 632-576630.
- Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-158176. Casilda.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 631-950442.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-490595.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 631-191558. Natali Castillo.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 665-441718.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 681-385304.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-012834.
- Gaztea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 604-170369.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, pisuak garbitzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 631-870590.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 649-049917.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-349494.
- Neska eskaintzen da etxean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Profesionaltasun agiria eta esperientziarekin. Tel. 626-407923.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-049781.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 643-374471.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-893312 eta 679-929348.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere edo interna. Tel. 688-735551.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Bi urteko esperientzia. Tel. 631-627419.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-067042.
- Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-023926.
- Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-260162.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldari ona. Tel. 612-521729.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Bikote arduratsua eskaintzen da lan egiteko: nagusiak edo umeak zaindu, baserrieta-ko lanak... Tel. 602-398328.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-012735.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-127979.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 608-862973.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 633-101852.

4.2. Langile bila

- Kamarera behar da Eibarko taberna batean. Arratsalde (16:30-20:30). Tel. 655-722967.
- Neska euskalduna behar da umeak goizean eskolara eramateko. Irailetik aurrera. Tel. 637-942140.
- Eibarren bizi den pertsona behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Astelehenetik ostiralera, bost ordu egunero, zaitutako ordu-tegian. Irailan hasteko. Euskera jakitea baloratuko da. Bidali curriculum-a: egogain2@hotmail.com
- Neska edo emakume euskalduna behar da uztailan umea zaintzeko. Jardunaldi erdirako. Tel. 676-105492.
- Neska edo emakume euskalduna behar da irailetik aurrera umea zaintzeko eta etxeko lanetarako. Jardunaldi erdirako. Esperientzia baloratuko da. Tel. 676-105492.
- Pertsona behar da hotel bateko harreran eta logelaren garbiketarako lan egiteko uztailan eta abuztuan. Curriculum-a bidali: jkasumba@gmail.com
- Emakumezko euskalduna behar da umeak zaintzeko. Jornada edo lanaldi erdia. Tel. 652--768569.
- Kamarera/o behar da Eibarren. Esperientziarekin. Tel. 627-664988.
- Kamarera behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: 1539cristina@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Maila guztietako Matematika, Kimika eta Fisika klase partikularrik ematen ditut. Lau laguneko taldeak gehienez. Urteetako esperientzia. Tel. 615-705945.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailan LH eta DBH ikasleei errefortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

lanerako gertu!

Oñati gestio **heziketa** **MGEP**
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Matrikulazioa
Uztailaren 11tik 17ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> •Automatizazioa eta Robotika Industrialia •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa •Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh www.mondragon.edu/gmhz
rigarza@mondragon.edu gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 80 09 943 71 21 91

B **ARRATE BEZPERA** **A**

E **IRAILAK 7 zapatua 21:00 KANTABRIA** **F**

R

T **andoni EGAÑA** **maiaen LUJANBIO**

S **oihana IGUARAN** **sebastian LIZASO**

O **SARRERAK SALGAI** **Hilaren 19ra arte: ...eta kitto!-n, bazkideentzat (2 sarrera bakoitzak)**

22tik aurrera: Kultu, Sagarbitza eta Kantabrian

A

KM.0 STOCK LIKIDAZIOA

FORD KUGA TREND + 1.5 ECOBOOST

4 x 2 Auto-Start-Stop
88,3KW 120CV

19.900€

-TIK AURRERA



EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569

KONDIA

www.fordkondia.com

PROMOZIOAK 2019KO UZTAILAREN 30ERA ARTE EDO STOCK-A AMAITU ARTE BALIO DU.

Promoziio hau ezin da beste eskaintza edo deskontu batzuekin pilatu. Zergak barne. Matrikulazio-gastuak ez daude barne. Galdetu baldintzak kontzesionarioan. Argazkian ikusten den modeloak ez du zertan bat egin eskaintzako modeloarekin.